



AGINDUA, 2023KO URRIAREN 30EKOA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAREN 2023KO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUEN 2023KO OTSAILAREN 21EKO AGINDUA HIRUGARREN ALDIZ ALDATZEN DUENA

I.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2023ko otsailaren 21eko Aginduaren bidez, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua xedatzen duenez, administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duen edozein erakundek, aldezturik, dirulaguntzen plan estraterikoko batean zehaztu beharko dituzte hura aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa-iturriak ere, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen badira.

Eskakizun hori betetze aldera, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak plan batean zehaztu ditu 2023an XII. legegintzaldiko 2020-2024 aldirako Euskadiko Gobernu Programan zehaztutako jarduera-ildoak eta ekimen estraterikokoak ezartzen eta garatzen jarraitzeko gauzatu nahi dituen dirulaguntzen programa eta jarduketa guztiak.

II.- Duela gutxi onartutako Merkataritza 2030 Merkataritza Estrategiak funtsezko bost eraldaketa-bektore ezartzen ditu merkataritza-sektorea sustatzeko: xede-bektoreak, hala nola merkataritza-enpresa eta hiri-espazioa; laguntza- eta azelerazio-bektoreak, giza kapitalean, ezagutzaren eta komunikazioaren kudeaketan eta integrazio- eta antolamendu-bektoreak, hala nola gobernantza eta baliabide publikoak.

Euskadin merkataritza-ekintzailatza bultzatzea eta babestea lehentasun estraterikoko da sailarentzat, eta halaxe adierazten da formalki 2. ekimenean: "Enpresa-garapena: ekintzailatza; dimentsionamendua eta transmisioa", Estrategiaren 1. bektorean, enpresara bideratuta. Baina ekintzailatza ezin da pertsonengandik kanpo eta isolatuta ulertu. Ildo horretan, 2030erako Merkataritzako Euskal Estrategian, merkataritza-ekintzailatza sektorearen behar estraterikokoekin ere lotzen da, haren 3. bektorearen (Giza kapitala) ikuspegitik nabarmenduta. Horrela, premiazko beharrak, hala nola talentua erakartzea eta sektorea gaztetzea, ezinbestekoak dira ekintzailatzarako, eta "Adinaren kudeaketa" estrateriaren 7. ekimenean formalizatuta daude.

Giza kapitla eta ezagutzaren kudeaketa ardatz dituen azelerazio-bektoreak Berrikuntzako Hub ekimena formulatzen du, espazio ireki, topagune eta/edo lankidetzaren sare gisa pentsatua, merkataritza-sektoretik nahiz haren inguruko beste esparru batzuetatik datozen berrikuntza-ekimenak/proiektuak identifikatu, integratu eta mobilizatzeke: berrikuntzan proaktiboak diren sektoreko enpresak, retail, unibertsitatea eta akademiari aplikatutako edo aplikatzeko proiektuak dituzten teknologia-zentroak, zerbitzu aurreratuen enpresak – aholkularitzak eta ingeniaritzak, industria-enpresak, etab.

Ildo horretan, Mondragon Unibertsitatea Enpresagintza-Facultad de Empresariales de la Universidad de Mondragón S. Coop (aurrerantzean, MU Enpresagintza) erakundeak, LEINN Lidergoa, Ekintzailatza eta Berrikuntza graduaren bidez, lankidetzaren esparru horretan jartzen du arreta, eta berrikuntza bultzatzeko, gazteen talentua erakartzeko eta ekintzailatza bultzatzeko beharra du, lidergoaren eta proiektuak gauzatzaren oinarri beretik.

III.- Planean sartutako jarduketaren xehetasuna honako hauetan aurreikusitako printzipioei jarraikiz egin da: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 3. eta 49.1 artikulua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege





Orokorren 8.3 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legea, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren dirulaguntzen plan estrategikoak egiteko 01/15 zenbakiko zirkularrak gaineratzen dituen jarraibideak.

Horregatik guztiagatik, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. – Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2023ko otsailaren 21eko Agindua aldatzea, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duena, eta ardatz estrategikoetan honako ekintza hauek sartzea, I. eta II. eranskinetan zehaztutako moduan.

BIGARRENA. – Kontrol Ekonomikoko Bulegoari agindu honen berri emateko eta horren berri emateko agintzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan, sailaren webgunean eta gardentasun-atarian argitaratuz.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 30

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ



I. ERANSKINA

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

2.- ARDATZ ESTRATEGIKOA: MERKATARITZA-SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNA
SUSTATZEA

Organo kudeatzailea: Merkataritza Zuzendaritza

46. konpromisoa. Merkataritzaren eta ostalaritzaren lehiakortasuna hobetzea.

Fitxa	Diru-laguntza lerroa	Zenbatekoa 2023	Zenbatekoa 2024
1.8.46.15	Dirulaguntza zuzena Mondragón Unibertsitatea Enpresagintza-Facultad de empresariales de la Universidad de Mondragón erakundeari, LEINNetik merkataritza-berrikuntza sustatzeko – Lidergo ekintzailearen eta berrikuntzaren maila	20.500 €	50.500 €
	TOTAL	20.500,00 €	50.500,00 €



II. ERANSKINA

1.8.46.15 fitxa:

Helburu estrategikoa (46. konpromisoa): Merkataritzaren eta ostalaritzaren lehiakortasuna hobetzea
Organoa: Merkataritza Zuzendaritza
Programa: Barne-merkataritza (7612)
Diru-laguntza ildo: Dirulaguntza zuzena Mondragon Unibertsitateari

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2023	2024
Helburua: Berrikuntza, enpresen sorrera eta talde ekintzaileen garapena sustatzea Europako eta munduko lehiakortasunaren esparruan.		
Ekintza: Lehentasunezko ekintza-ildoak aztertzea Merkataritza 2030 Estrategiaren esparruan, eta osagai teknologikoa duten merkataritza-berrikuntzako proiektuak proposatzea, hautatzea eta gauzatzea.		
Adierazlea: Berrikuntza-proiektuen proposamenen kopurua, egindako mentoretzen kopurua edo egindako jardunaldien kopurua.	5	10

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko		
	2023	2024
4 Kapituluak	20.500 €	50.500 €

Sektore hartzaileak eta emateko prozedura	
Sektore hartzaileak:	Euskadiko merkataritza-sektorea
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Zuzeneko dirulaguntza, Gobernu Kontseiluaren erabakia